

Desde hace más de 300 años, en el mes de septiembre, los habitantes de Otxandio acompañados por los representantes municipales, recorren los mojones que limitan el municipio, reafirmando de esta forma su identidad social y territorial, algo que se conoce como la Basabisitta. Este sendero PR recorre gran parte del itinerario tradicional, dándonos a conocer un sinfín de enclaves de gran interés.

**Partimos de la Plaza Nagusia**, frente al ayuntamiento, donde encontramos un panel con la información de los senderos de Otxandio. Por el viejo Camino Real cruzamos la calle Uribarrena para acceder al Vía Crucis que tras pasar frente a la ermita de **San Roke** y cruzar la carretera llega hasta el Calvario. Giramos a la izquierda y caminamos cerca de 1 Km por "Gorrien bidea" hasta que a mano derecha nace el pequeño sendero que entre pastos, plantaciones y hayedos nos acercará al arroyo de Iñola. En este último tramo el PR-BI 50 coincide con el GR 38, pero una vez cruzamos la regata nuestro sendero continúa por la derecha hasta que confluye en el viejo camino que desde Gomillas asciende entre viejos hayedos y jóvenes plantaciones de coníferas hasta alcanzar el monte Mirugain, hacia donde nos dirigimos. La pista cruza numerosos hayedos hasta alcanzar el cordal de Mirugain, límite entre Otxandio y Legutio. Una vez aquí discurre paralelo a la alabrada hasta cruzar nuevamente con el GR 38.

Tras disfrutar de las vistas del valle y la sierra de Anbotu que nos ofrece el cerro de **Tantaibakarra**, el sendero comienza a descender fuertemente hasta llegar al río Iñola, que cruzaremos por un puente de reciente construcción. El sendero desemboca en Gorrien bidea, junto a la **chabola de Don Andrés**. Después de caminar unos 500 metros por este histórico camino, lo abandonamos para entre plantaciones de coníferas y pastos dirigirnos hacia el núcleo rural de **Aurtola**, a donde llegaremos tras cruzar el arroyo de Oletarreka. En este barrio, junto al restaurante Goikoetxea, encontramos una vieja haya de gran porte. Bajo este árbol firman todos los años los vecinos de Otxandio el viejo libro de la Basabisitta.


Entre Aurtola y Oleta la ruta discurre por la carretera, que abandonaremos para acceder a la pista que nace frente a la iglesia de Andra Maria. Antiguamente por aquí discurría la calzada que unía Otxandio con Oleta, de la que aún se conservan algunos tramos en muy buen estado. Sin abandonar la pista comenzamos a descender suavemente hasta llegar a un cruce de caminos cercano a la regata de Amezolaerreaka, donde nuevamente cruzamos el GR 38. Salvamos el arroyo de **Amezolaerreaka** y entre pistas forestales llegamos al límite de Itza, una de las pocas grandes fincas para la explotación ganadera en Otxandio.

En el límite de la finca encontramos un viejo mojón, donde giraremos a la izquierda para continuar entre plantaciones de coníferas hasta llegar a la chabola de Matrukena. Unos metros más adelante, el PR-BI 52 confluye en nuestro recorrido y juntos caminamos hasta el próximo cruce, donde nosotros debemos girar a la derecha dirección al barrio de **Andaparaluzeta**. Desde este núcleo rural la ruta continúa hacia el área recreativa de Presazelai, pasando antes junto al curioso mojón de **Azpikoarri**.

Desde **Presazelai** continuamos por la carretera hasta acceder al viejo camino de Mekoleta. Después de cruzar junto a una interesante aliseda abandonamos dicho camino para comenzar la ascensión al monte **Motxotegi**, desde donde podremos disfrutar de unas espléndidas vistas del Parque Natural de Gorbeia. Hasta esta cima accede desde Ubide el GR 123. A partir de este punto y hasta llegar al pantano de Urrunaga ambos recorridos descienden juntos por la pista que construyeron en la Guerra Civil, pasando junto a las ruinas del viejo botiquín. La pista desemboca en el mismo pantano y continúa hacia **Gordobil**, donde existió una vieja venta. Este paso resulta muy conflictivo, ya que en invierno y tras fuertes trombas de lluvia, queda cubierto bajo el agua, pero podemos bordear el pantano por las pistas bajas de Motxotegi hasta alcanzar el barrio de Mekoleta y la zona de Gordobil. Desde este punto el PR-BI 50 se dirige al barrio de **Gomillas**. Este entorno también albergó una vieja venta, así como una pequeña aduana o Katia. Desde Gomillas solo resta volver a la ya cercana villa de Otxandio, siguiendo el trazado del viejo Camino Real.



otxandio



otxandio  
mirugain  
oleta  
andaparaluzeta  
presazelai  
motxotegi  
otxandio

PR-BI 50




Basabisitta

PR-BI-50

1	Otxandioko plaza	0 km	7	Andaparaluzeta	12,5 km	
2	San Roke	0,5 km	8	Azpikoarri	15,2 km	
3	Tantaibakar	4,5 km	9	Presazelai	16,5 km	
4	Don Andresen txabola	5,2 km	10	Motxotegi	19,4 km	
5	Aurtola	7,8 km	11	Gordobil	22,5 km	
6	Amezolaerreaka	9,1 km	12	Gomillas	24,3 km	
					<b>guztira - total</b>	<b>25,5 km</b>





*Duela 300 urte baino gehiagotik hona, Otxandioko biztanleek eta udal ordezkariak udalerriko mugarren bisita (Basabisitta) egiten dute irailero, herri nortasuna eta lurraldetasuna berresteko asmoz. Ibilbide laburreko bidezidor (PR) honek tradizio handiko bisitaldia du gidari. Otxandioko mugak ibiliz eta basoak zeharkatuz interes eta historia handiko txokoak ezagutzeko aukera izango dugu.*

## Plaza Nagusian

emango diogu hasiera txangoari. Bertan Otxandioko ibilbideei buruzko informazio panela aurkituko dugu. Errege bideari jarraituz, Uribarrena kalea zeharkatuko dugu. Urkiola erreka zubitik pasatu eta Via Crucis-etik Kalbariorantza joko dugu, lehenik **San Roke** ermita aurretik pasatuz. Hiru gurutzetara heltzean ezkerretara doan bide historikotik, Gorrien bidetik, joko dugu eta kilometro bat egin ostean eskumetara jaiotzen den bidezidorrari helduko diogu. Zelai, landaketa eta baso artetik Iñolaerrekara helduko gara. Azken tartean GR 38arekin batera doa gure PRa, baina behin erreka zeharkatu GRak ezkerreko pistan gora egiten duen bitartean guk eskumatik jarraituko dugu, Iñola errekan behera, Gomillastik Mirugainera doan bidearekin bat egin arte. Ezkerretara egingo dugu oraingoan, pagadi eta landaketak zeharkatuz, mendilerrera igotzeko. Otxandio eta Legutioko mugatik gora goaz, berriro GR 38arekin topo egiten dugun arte. Aurrean Legutiorantz doan bidea utzi eta hesia bitan pasatu beharko dugu **Tantaibakarrera** heltzeko.

Lekuak eskaintzen digun ikuspegiak gozatu ostean, mendian behera egingo dugu, zuhaitz eta iratze artean doan bidezidorrari jarraituz. Malda handiko bide honek Iñolaerrekaraino eramango gaitu. Zubi berritik erreka zeharkatu eta **Don Andriaren txabolara** helduko gara, berriz ere Gorrien bidean. Ezkerrera jo eta 500 metro inguru ibili ondoren Gorrien bidea albo batera utzi eta eskumara jaiotzen den pista hartuko dugu. Larre eta landaketa artean **Aurtola** auzora helduko gara, aurretik Oleta-errekara gaineko zubia zeharkatuz. Aurtolan, Goikoetxe jaietxearen alboan, taxuzko pago zahar bat aurkituko dugu. Zuhaitz honen azpian bildurik sinatzen dute urtero otxandiarrek Basabisittaren liburu zaharra.

Aurtolatik Oletara errepidean zehar goaz, harik eta Andra Mari eliza aurrean ezkerreko pista hartzen dugun arte. Hemendik zihon antzina Otxandio Oletarekin batzen zuen galtzada zaharra, tarteka oso ondo mantentzen dena. Pistatik 800 bat metro egin ostean, berriz ere GR 38arekin egingo dugu topo. Puntu horretan eskumako estrata hartu eta **Amezolaerrekako** zubia zeharkatu eta gero pistaz-pista Itza baserri inguruko zelaien mugara helduko gara. Mugariaren ondoan ezkerretara jo eta Matrukena txabola ondotik pasatu ostean PR-BI 52arekin bat egingo dugu. Bi PRak elkarrekin doaz hurrengo bidegurutzeraino. Puntu honetan, eskumara joko dugu, Itza ondotik pasatu eta azkenik **Andaparaluzeta** auzora heltzeko. Hemen kontu handiz errepidea zeharkatu eta beste aldean jaiotzen den pistatik jarraituko dugu, Presazelaiko atsedengunerantz. Bidean mugarri bitxiak ikusiko ditugu. Horien artean aipatzekoa da **Azpikoarri** izenekoa, pago zahar biren zaintzapean dagoen bi metro inguruko bidarria.

**Presazelai**en errepidetik jarraituko dugu (eskumara), Mekole-tako bide zaharra hartu arte. Haltzadi eder baten ondoan bidea albo batera utzi eta pistaz-pista **Motxotegirantz** joko dugu. Tontor honek (811 m) Gorbeia Parke Naturalaren ikuspegi ederra eskaintzen digu. Bertan, gure PRak Ubidetik datorren GR 123arekin bat egiten du, eta elkarrekin jaitziko dira Urrunagako urtegeraino, gerra zibilean egindako pistatik, aurretik botikin zaharraren alboan pasatuz. Urtegia zeharkatzea ezinezkoa izaten da euri asko egin eta urak gora egiten duen egunetan. Kasu horietan urtegia inguratuz Mekoletara doan pistatik jarraitu ahal dugu (ezkerretik), eta hortik **Gordobiler**a bueltatu. Benta zaharra egon zen antzina hemen, Gordobiletik Otxandiora zihon galtzadaren alboan.

Gordobiletik Gomillasera pistaz pista egingo dugu, Pagadoi mendiaren magalean zehar. **Gomillasen** ere benta izan zen antzina, baita aduana edo Katia ere. Errege bideari jarraituz bueltatuko gara Otxandiora, berriz ere San Roke ermita aurretik pasatuz.



otxandio